

“AITZINEUSKERAREN BERRERAIKETAZ: EGINDAKOAZ ETA EGINKIZUNEZ (A. Sagarna, J.A. Lakarra, P. Salaberri). *Pirinioetako Hizkuntzak: lehena eta oraina (Iker 26)*”

OHARRAK (Josu Naberan)

0. SARRERA

01. Helburuaz- Euskeraren egitura diakronikoki (historian zehar) ikertzea, AITZINEUSKERA BIDE eta HELBURU izanik.

1. TERMINOLOGIAZ

1.1. AE.- Aitzin Euskeraren monosilabazko erroak bilatzea helburu.

1.2. AEZ.- Euskera mintzatu zaharra

1.3. EBZ.- Euskera Batu Zaharraren zatiketa

1.4. EBN.- Euskera Batu Neolitikoa (nihaurk erantsia)

1.5. AEM.- Euskera Modernoa. Euskera/latina harremanaren aurrekoa

1.6. A.H.- Atzin hizkuntzak (“erromantzeak”). Iruña-Veleia (II. mendea). -nihaurk erantsia-

1.7. Berreraiketa “kanonikoa” edo estandarra (K. Mitxelenak egindakoa)

2. METODOLOGIAZ eta metodologiari buruzko OHARRAK

2.1. Euskal Hizkuntzaren historiari buruzko ikuspegi orokorra behar da aurkeztu, ikuspegi diakronikoa epeka bereizita. Hona hemen, nire aburuz, Euskeraren Etapak (garapen-faseak), euron kronologiarekin

a) Behe paleolitikoa (-120.000-45.000~). Lehen euskera mintzatua. Euskera txistukaria eta mingainekoa, batik bat. Aditzaren lehen egitura gramatikala.

b) Ertain Paleolitiko (-45.000-20.000~). *Kromaiñonaren* etorrera: CVC hizkera eztaizkoa.

c) Goi Paleolitikoa (-18.000). Bisilabazkoen eraiketa Solutre Aldiko Paleolitiko Akitaniarrean

d) euskal-iberieraren historia

e) euskera-iberieraren zabalkundea lau kantoietara. Euskera-iberiera “lingua franca” Europa osoan (-10.000~)

f) ABZ-ren eraldaketa fonetikoa

g) euskera modernoa

h) egungo euskera

J. Lakarra, A. Sagarna eta P. Salaberriren txostenean, AE-ri buruzko ikerketan, eta testuinguru aurre-historikoaren (kronologia “diakronikoaren”) ikerketa zehatza –*précise*- ematen dut faltan. Aurre-historiako kronologia zehazteak AEZ euskera Mintzatu Zaharraren ikerketa-aitzinamenduan lagunduko liguke haboro. Eremita paleolitoko kulturahoni “franco-cantábrico” deitu diote orain arte, Europa mendebaldeko habia-biokultural honetaz mintzatzean, euskera eta euskal eremuaren aipamena ekiditeko (kolonizazioaren ajeak). Baita oraintsu “Zibilizazio Atlantikoa”, txit desegokiro, ezen ez baikaituk horrebesteraino heldu-eta. Askoz egokiago deritzot “Bizkaiko Golkokoa” deitzea.

3. AZALPEN XEHATUA

3.a- Lehenbizi, Behe Paleolitoko euskerari dagokionez, giza espeziea berbetan hasi zeneko lehen euskera mintzatua da, zeinuz, keinuz, eskuen mugimenduz, kintinelaz eta abarrez lagunduriko euskera monosilabazkoa, hots-hitzezko hizkera. Ordurako (-150.000-120.000), antropólogo guztiak datoz bat berrestean ezen Bai Neandertalak eta bai Heidelberg Gizakiak (honek gutxiengo agian), hitz egin ahal izateko gaitasun fonofisikoa zutela (eztarriko *hioides* hezurtxoa-eta). “Tokiko Neandertalaren euskera” eta halakoak aditzean, jendea hatz erakuslea altxatzen hasten da. Baina hausnar bezate pixkat, larreko behien haina bederen. Benetako miraria zezakeena, sekulako miraria, hemengo neandertalak hitz ez egitea zitekeen, mundo osoko neandertal guztiak hitz egiten zutenean. Baina hori ere posible dateke “Euskal Oasi” miragarri eta kolonizatu honetan.

3.b-Gauza da ezen, nire aldetik hoge bat urte luzetako ikerketa luzearen ondoren, lortu nuela azkenean Goi Paleolitoko bisilabazko hitzak isolatzea (470 inguru). Horretara iristeko, Ereku Paleolitoko toponimia guztia aztertuz hasi nintzen (DAGOENETIK, eta ez aurreiritzetatik). Sartu nituen, bada, ordenagailuan, 25.000 toponimo (Dordoina, Landak, Pirinio barrenak (Aragoe, Nafarroa, Errioxa, Sori, Kantabria, Asturias), eta hortik irten ziren erro bisilabazko mordoak, bai autentikoak zein itxurazkoak. Iragazketa-lan zehatz baten ondoren, monosilabazko erro banaezinak ere irtetzen hasi ziren. Azken hauek dira, hartan ere, lehen euskera mintzatuaren erroak: hots-hitz banaezinak.

Liburu bat ere argitaratu zidaten (*Hitz-Ele-Berba*. 1905. Basandere Agitaldaria), hitz monosilabazko nahiz bisilabazkoak sailkatuz, Bitor Kapanagaren hipotesiari jarraiki (“Las tres Raíces de las que surgió el euskera”) Eta ez dago esan beharrik mespretxu olinpikoa merezi izan zuela mundu akademikoaren aldetik. Nork eta “frik” batek egingo! Harrokeria gehixeegi bazterretan, hura onartu ahal izateko... Baina gutxienez bizirik darrat, eta bai erro monosilabazkoen zerrenda, baita bisilabazkoena, esekita utzi ditut *Academia-edu* digital kaliforniarrean. Hantxe datza nire web-profilean, ikusi nahi duenaren begibistan.

3.c-Ertain Paleolito Aroko euskerari buruz, bapateko **brankabuelta fonetiko**a gertatu zen: neandertalaren hizkera txistukari eta minganekotik, Fonetika Eztarrizko Bortitzera (*fortis*) iragan zen. Horrek esan nahi du, beste hipotesirik ez dagoen bitartean, edo inbasio bat edo **populazio zeharo desberdin baten etorrera** gertatu zen. Eman dezagun azken hau izan zela, fonetika txit ezberdinez mintzatzen zen “sapiens-sapiens” deritzan Kromañoia iritsi zitzaigula hona ere. Honen hitz-erroei dagokienez, 5 erro CVC monosilabazko isolatu ditut: GOR/KOR, GUR/KUR, TOR/TRO, KAS/KAST, KAR/GAR, eta euroatik datozen hitz-familiak.

3.d- Ustez **Kromañoia den eztarrizko hizkera hau ia erabat baztertua geratu zen** garai hartan. Euskerak halako 5 edo 6 erro agertzen ditu soil-soilik (nire helmenaren arabera), ustez neandertalarenak diren 26 erro monosilabazkoen artean. Eta garrantzitsuena zera da: Goi Paleolitoko arkitektura bisilabazkoa azken erro hauen gainean eraikita dagoela (IZ→IZAN; ZI→BIZI, ETS→ETSE, SU→SUTE... etab.). Ikus zehazki Monosilabazkoen Zerrendan.

3.e-Hizkera bisilabazko Solutre Aroan eraiki zuten (-18.000~), Glaziazio Goreneko (EME) tarte epelago batean, euskal eremu Akitania eremuan; **euskeraren sehaska trinkoenak Dordoina eta Kantabria-Asturias aldea izan ziren** (koba gehien zegoen lekuak, ezen EZ egungo euskal eremuan, zeren hemengo orduan “Periferia” oihantsu eta aski despopulatu baitzen. Izatez Koba garrantzitsu batzuk bai direla hemen (Ekain eta Isturitz garrantzitsuenak), baina nahiko barreiatu eta isolatuak, hizkuntzsehaska nagusi izateko.

3.f- Oso aintzat hartzekoa da hizkera bisilabazkoa barri hau EUSKERA-IBERIA izan zela, gertakari honetatik ondorizatu daitezkeen ondorioetara lerratzen joan gaitzen. Izan ere, zera esan nahi du horrek, alegia: **iberiera ezagutzea ezinbestekoa dugula aitzineuskera (AE) ikertzeko orduan.**

Solutre Aroaz geroztik, euskera/iberiera hizkuntza bat eta berbera izan ziren 12.000~ urtetan zehar, harik eta, Neolito Aroa iristean, bereizketa hasi zen (dialektatze-prozesua). Bilakaera honen arrazoia begibistakoa da: leinu batzuk Akitaniako eremu zabalean egondu zirela, eta gainerako leinuak Levante-Andaluzia-Lusitania aldean.

Aldiz, bilakaera horrek EZ zuen luzer iraun, zeren eta iberiera fosilduta geratu zen, hura latinak ordeztu zuenean (hiru bat milurteko tarte, nonbait). Horregatik, **iberierak eta euskerak 450 inguru bisilabazko partekatzen dutenez, aski erraza da iberiera euskeratik irakurtzea**, eta hala egiten diat gero eta sarriago azalartzen ari diren idazki iberoeekin, adibidez oraindik oraintsu Ruscino testuekin (ikus Academia.edu).

Historia honen ezagutza funts-funtsezkoa dugu, baldin eta “Romanismoaren” fantasietan galdu nahi ez badugu. Euskal maileguak, baldin eta benetazko mailegu badira, ez ditugu bilatu behar latin-greko iturburuetan, baizik eta lehenik eta behin, iberieranean (euskeraren ahizpa bikia) eta iberieraren dialektoetan (gaztelera-catalâ-aragoe-gaskoinera), hots “erromantze” deituak, uste ianez, inongo arrazoi zientifikorik barik, latinetik datozela; baina EZ, “erromantzeak” ez datoz latinetik, baizik eta iberieratik, geroxeago ikusiko dugunez. **Gure ahalegina, barriz, gaztelera eta abar euskeratik interpretatzera zuzendu behar dugu**, eta nabari da ezen “erromantze” gaizki izendatuko lexikoan, euskeratik dezifratzen den hitz mordo handi bat dagoela. Eta horren zergatia ere ximplea da, izan: **gaztelera eta kideko berba gehien-gehienak iberikoak direla!** Hots, ustezko “erromantzeon” ama hizkuntzatikoak.

3-g. Iberoer pentsaerari eta erlijioari dagokionean, haien erlijioari ATEAREN ERLIJOA deritzana da. Sineskera hori zehatz-mehatz azalduta ageri da aipatu “Ruscinoko” testu luzean (Perpignan ondoko azternategian). Gizarte bizitza osoa YUNE edo UNI Damaren eta bere Tenpluaren inguruan antolatuta zegoen (antzina Sumerian bezalaxe), eta Tenplu horretako funtzionarioen eginkizunean (ezin jakin apaiz *maskulino* edo *femenino* ote ziren, zeren iberierak (euskerak bezalaxe) ez baitu markatzen zein generotakoa den bakoitza.

3-h. Euskera-iberikoaren globalizazioa.

Aitzineuskeraren ikerketarako gauza garrantzitsuna, zalantzarik gabe, hurrengo historia hau ezagutzea litzateke; alegia, Euskeraren Historiako unerik garrantzitsuena eta ezezagunena, inon ez baitute azaltzen. **Duela 12.000~**, euskera-iberiera Europa osoko *lingua franca* izan zen; alegia, europar **“den-denek ezagutzen zuten hizkuntza”**, orain ia mundu osoan ingelese den antzera. Pentsa, hori aldarrikatzen hasiko baina, “arrazista” garen kondemnazioa genuke berehala lepo gainean. Euskal populu apalduak ere ezin halakorik irentsi.

Baina horrek ez du esan nahi, jendeak sinestu ala ez, hala izan ez zenik. Hala izan zen oraigoan. Eta ez da ezinezko gauza, baizik era, Jose-Mielen errepikatzen zuenez, “distantzia bera baita handik hona eta hemendik hara” Ezin albora utzi geofisika kontua.

Antzineuskera aztertzerakoan garrantzitsuena da, barriz, **euskera mintzatu zaharrak (AEZ) bere erro modoxka bat barreiatu zuela lau kantoietara**. Lehenbizi (-17.000~) gure arbaso zaharrek Iparralderantz eta Mendebalderantz jo zuten, ehiza-animalia handien atzetik, eta gaur egun “Britainia Handia” (Irlanda eta barne) deritzararen kantoietan utzi zutela hizkuntza arrastoa (gogoratu garai hartan Britainoa osoa Europa kontinentalera lotuta zegoela, egungo Brexit-zaleak gorabehera).

Muga haiek gaindituz, eta Glaziarea zehar-inguratuz, Kanadara eta eta Eki Amerikara jo zuten, eta haraino eramane Solutreko lantzapunta (ezin arkeologiaren aitzi jarri). Baina gure arbaso ausart haiek beren euskera ere eramane zuten urrutiko lurralde hartara. Hortik Kanada indigenoan oraindik orain bizirik diraute *athabaskoa* eta beste hiru hizkuntza, eukerarekiko senide. Eta ezin uka ere lingüistikoki begibistakoa omen dena (munduko hizkuntzalari famatuenek diotena). *DENE* hizkuntza horiek, gehi *NA* navajo/apatxeen ama-hizkuntza, euskerareriko senide. **EtaDAGOEN hori ez du txiste merke batek konpontzen: “NA-DE-NA” (dixit Lakarra).**

Handikdozena bat milurtetara (-12.000~), Akitania Paleolitoko Madaleindarren migrazioa gertatu zen, eta gauza bera errepikatu Eurasian zehar, Siberiako Yenisei bailararaino iritsizirelarik, non orain bizirik dirauen KET hizkuntza aurkitzen den, euskeraren egitura gramatikalbertsuaren arabera eraikia. Noski, bide batez **Europa osoan zehar barreiatu zituzten euskal erro mordo demasa**. Horregatik, Morvan hizkuntzalari Parisekoak, Europa osoko euskal erro horietaz guztietaz ohartzean, “euskera Ekialdetik etorri zitzaigula” erratikoki erraitea. Baina gogora bedi “Joxemilen batelaz”

Euskeraren historia luze honek izanen du zerikusirik, diñot nik, AEZ eta EBZ erroak arakatzearekin.

3.i- EBZ Euskera Batu Zaharraren eraldaketa fonetiko.

Hori ere gertatu zen gurean. Arrazoi Josebak; nahiz eta gertaera horren data zehatzik ez gutxi gorabeherakorik ematen EZ duen, jada ohituta gaituenez. Bada, Mesolito Aroan izan zen (11.000-9.000 bitartean). Garai horretan, Corominas hizkuntzariak bere liburuan azaltzen duen "Capsiens-Sauveterre Kultura" deritzana gertatu zen, hots, **Berbereen amazigh hizkuntzaren eta Akitaniako euskeraren arteko inkontrua.**

Ezin ahaztu Gafsa jendeak lehen zeramika "kardiala" zekarrela Europara (Margolaren margo-markaz hornitutako zeramika). Eta gure Hiztegiek ez dute "MARGOLA" hitz Urdaibaikoa jaso, zoritxarrez, baizik eta "BERBERETXOA". Baina tira, berba hori ere "Berbere" haien erreferentzia dela dirudi. Kontutan hartu behar da Gafsa/Kapsa zibilizazio boteretsu hura bere loraldian zegoela (bide batez, Gafsa hiria oraindik ere hantxe datza, betiko leku berean, Tuniziako Gabés kostaldetik 160 km.-tara. Gafsa arbasoen arbasoak ATER zibilizazio Solutre Arokoak ziren (18.000~), "Ater-en seme-alaben leinukoak". Zibilizazio gune indartsua hura, eta Iberiako jendearekin antzina-antzinatik harremandua. Beraz, haiekin topo egin genuen Mesolito Aroan (-11.000-9.000~), esan bezala.

Orduan, amazighen hizkera txit eztarrizkoa zenez (*fortis*), euskeraren jatorrizko fonetika hasperenduantamainako eragina izan zuen (H→K). Seguruenik zenbait milurtekoren ondoren, euskerak, bere aldetik, bere egokitzapen fonetiko egin zuen, K hori biguntzera joaz (K→G). **Eta hortxe amaitzen da "erladaketa fonetikoarena". Ez zuen inolako eraginik izan euskal egitura gramatikal zaharrean, ezta, beraz, euskera "muchísimo" aldatu dela diotenei (Mitxelena dixit) argumenturik eman ere.**

3.j- Euskal Dialektoen sorreraz (-4.500~)

Beraz, Dialekto Modernoa delakoa (EBM) ez da garai berantiar horretako dialektoa, Lakarra jaunak eta pentsatzen duten moduan, baizik eta askoz lehenagokoa: EBM deritzan etapa baino 8 edo 9 mende lehenagokoa (-19.000~). Orduetik hainbat mende geroago (-4.500~) eredu batua banantzen hasi zen, euskal dialekto modernoak (EBM) sortu zirenean.

Horren zergati nagusia honako hau izan zen: **bi kulturaren arteko inkontrua** gertatu zela. Batetik, Kobetako Kultura ("Kultura Almeriara" deritzana), Euskal Lurraldeetako eremura Ebro ibaian gora etorri zitzaizuna; eta bestetik "Halliade Kultura" deritzan kultura europar kontinental. Halliade Kulturaren eragina izan zuen euskal eremuak Zuberoa eta Nafarroa Beherea hartu zituen barne; aldiz, Kultura Almeriarraren eraginpean Bizkaia eta Arabako mendebaldea (egungo *bizkaiera*) eta... Lapurdi aldea (egungo *lapurtera*) izan ziren. Hortik lapurterak eta bizkaierak partekatzen dituzten zenbait antzekotasunen arrazoia.

Beraz, AE, "aitzineuskera" definizioa ez dator bat EBZ (Euskera Batu Zaharrarekin), ez Kronologia aldetik, ez Izaera aldetik.

Ondorioz, AE aitzineuskera monosilabikoa egokiro dezifratu ahal izateko, Milletek eta Mitxelena jaunek eskatzen zuten "**philologie de précision**" behar da **lehenbizi**, hots, Kronologia zehatza, ahal denik eta zehatzena. Eta hori da, hain zuzen ere, Txosten honetan faltan dagoena. Batez ere Historiaurreko Kronologia fonetiko-gramatikala eta Lakarrak berak garrantzitsuzat jotzen duen PERIODIZAZIOA", hots, etapaz etapako zehaztapena, **etapa bakoitza bere eremuan mugarrituta datzana.**

3.k- Egitekoak eta Eginkizunak.

J. Lakarrak diño ba ezen ABZ (Euskera Batu Zaharra) dela guk berreraiki dezakegun muga, hau da, Goi Paleolito eta Pirinio inguruko "euskera zaharra": -18.000 urtez geroztiko hizkera bisilabazkoa erran nahi duela uste diat (datak nihaurk erantsiak)

Jakina, bada. Hainbat siglaren artean egeri den baieztapen hau begibistakoegia da (ia perogruioren logikakoa). Hots, aitzineuskera den hizkera monosilabazkora (aitzineukera) iritsi ahal izateko, lehen euskeraren **hizkera bisilabazkoa dezifratu behar; eta hori dezifratzeko, euskera bisilabazko hori isolatu behar lehenbizi.**

“Eta hori –eransten du Lakarrak- Euskera Historikoa bitartekotzat erabilia”. Jakina, motel: euskera neolitikoa, modernoa, eta gaur egungo lexikoa ere bai, zergatik ez.

Bada bai, horixe izan da neure ibilbidea edo metodologia ere, zilegi bazait esatea nik ene bide propia korritu dudala eta horren emaitzak atera (Cf. Academia.edu: “*Lehen euskeraren hots-hitzak*. Naberan Josu)”

Halere, argitu behar dut **Txostegile honen Metodologia eta neronena guztiz kontrajarriak direla**. Izan ere, J. Lakarraren txosten honetan argi geratzen denez, hau azken muturretik hasten da (monosilabazko hizkeratik), eta gainera CVC – kontsonante/vocal/kontsonante- ereduaz ezarri gura dau besterik gabe, modu axiomatikoz. Ondoren, bisilabazko hizkera eraikitzea datorke, eta azkenez gaur eguneko lexikoa. Hori, ene ustez, etxea teilatutik hastea bezalakoa da; handik, gero, tximiniatik sukaldera jaisteko, eta azkenean sukaldetik satora, berak agintzen digunez eginen duela.

Nire bidea, aldiz, dagoenetik abiatu da: Akitania Paleolitoko eremu osoko leku-izen guztiak sartu nituen ordenagailuan (25.000 inguru) gehi Hiztegiak lexikoa. Abarrera guzti horretatik Adarrak bilatzera jo nuen, abar mehetatik lodiagoetara, eta hórrela, eta azkenean euskera bisilabazkora iritsi nintzen arte, Sulutre Aroan eraiki zutena (-18.000~). Eta azken-azkenean, artasiku horri mila buelta eman ondoren hogeitertan zehar, lehen euskera, “aitzineuskera” edo lehen giza espezie hiztunaren hizkera monosilabazkora.

Ez da harrokeria. Joseba Lakarrak-eta, egiatan, nihaurk adina buelta eman diote euren artasikuari, hainbat urte eta energia eskaini diote euskerari... Batzuen eta besteon meritua da, zalantzarik gabe. Eta, gainera, bakoitzak bere ibilbidea horretan, oztopo bertsuekin egin dugu topo.

3.1- Euskera Bisilabazkoen erroak isolatzeko zailtasunak.

Berba bisilabazkoak isolatzea oso zaila da. Izan ere, **bi silabadun diruditen hainbat hitz, egiatan ez dira bisilabazko soilak**; adibidez, *BERTAN, BERTON, HARTU, GORRI, LEUN, URDIN*. Bisilabazko garbiak ematen dute, baina itxurazkoak baino ez dira:

BERTAN *ber-uha-an (3 silaba); **BERTON** *ber-uha-on (3 silaba);

HARTU *ara-an-tu (3 silabako); **GORRI** *go-on-arre-ei (4 silabako); **LEUN** hitzak LEHUN/LEGUN du aurretiko, beraz *leh-gune-un(e), (3 silabako); **URDIN** *urru-en-din (3 silabako), eta horrela zientoka.

Batzuetan hitz konplexuagoen *laburdura* direlako, eta, batez ere *lokailu zirkunstantzialak* dituztelako tartean. Lokailu horiek, kasik ikustezinak izan arren, hitzak mugitzen dituzten dinamoak dira: **an, en/in, on, un**, honez gero aski ezagunak “ofiziokoak ez-garen” batzuentzat bederen. **Hizki “zirkunstantzialak” delakoak, ñabardurak dira; jarduera ñabardura (an); jatorri ñabardura (en); ekintza ñabardura (in); eta espazio-denbora ñabardura (une/un/on/o).**

Beraz, bisilabadun-aizun asko dagoeta, ahaleginak ahalegin, seguru “gazaporen” bat izanen dugula betiere: **itxurazko bisilabadun besterik ez direnak**.

J. Lakarrak ere gauza bera diño, eta berak honao hauek aipatzen dit bederen: JO (*jaiten), EHO (*e-non), JOAN, ERRAN, ERRUN, EDIN, EDUN. Eta, haren ustez, bisilabazko horien eratorriak liratenak: IKHAS, EKHARRI, EROAN, EBILI, IRUDI, ETHORRI, EDIRO (*eradin/ediren), IGARO (iragan), IRAMO (*iraman); hauek guztiak **e-** bokaletik omen datozenak (nik ere hala uste dot).

J. Lakarrak dioenez, berak 140 erro bisilabazko isolatu ditu, oraingoz.

Neuk ere 470, oraingoz (*ikus* zerrenda osoa Academia-edun). Betiere horietariko batzuk egiatzko bisilabadun ala soilik itxurazko ote diren zalantzarekin.

3.m- Euskeraren Kronologiaz eta bilaraeraz

Euskera “etengabe aldatuz” joan delako ustekizun merkeak ez dauka, beraz, oinarri zientifikorik, eta hori dioenari berari dagokio berak dioena demostratzea argiro. Nik ez dut sumatu inola ere hala gertatu denik, euskera “tengabe aldatuz joan” denik, alegia; hots,

Mitxelena jaunak uste zuena: “euskeraren historikoaren egitura nagusia zeharo aldatu dela”, baizik eta guztiz kontrakoa: **euskeraren bere etapa guztietan, pausoz pauso eraiki zela**, eta nobedade barria aurretiko egituraren oinarritu ohi dela. Hau da, **euskeraren paleolitiko bisilabazkoa (AEZ) aurretiazko hizkeraren monosilabazkoa (AE) oinarritu zela, eta modu berean Euskeraren Neolitikoa aurretiazko hizkeraren moldean oinarritu dela...** Hortaz, ez dago antzar karrakaz hitz egiterik, baizik eta norbere esaldiak arrazonamendu zientifikoz demostratu beharra.

Sekulari ere ez litzateke bidezko norbere hipotesiak ongi demostratu barik plazaratzea. Joseba Lakarraren txostenera itzuliz, ez dut uste batere zientifikoa denik, kasu, BAN-/BAR-/BAL-; GAR-/GAL-; HAR-/AHAL; GOI→BIK-/HUR; BIZ-BI eta “geroztiko” omen diren HETA; HALA, ALA (Lakarra, 2016); NI/HI/GU; ZUR; BIN-, BIN-, BIR-, BIH; BUN-BUNK-BUK-, BUL-; ZUN-, ZUR-, ZUH-, ZUL-, ZU-, ZIN-, eta halako hipotesiak “botatzea”, oso ongi demostratu arte erro horiek nondik sortuak diren eta zer dela-eta jartzen dituen.

Den-dena justifikatu beharra zegoen. Ez J.A. Lakarrak ez beste inork ezin izanen dugu justifikatu gabe utzi ez hizki ez tiletik, baldin eta hizkuntzalaritzaren joko-zelaiko arauak betez gero, benetan ere zientzia-mailako eremuan jokatu nahi badugu. **Den guztia justifikatu behar da, arrot samarra dela iruditu arren.** Adibidez, Lakarrak edo Blancak -i edo -tu adizkiak jartzen badituzte, adizkiok nondik sortuak diren eta zer esangura daukaten azaldu beharko dute.

Eta, aski arrot eta ezagun diren arren, ez pentsa hain samurra denik interpretatzea: -TU adizkia, kasu TUI zein ITU erroetatik etor daiteke, erro “antinomoak” berauek, esangura zeharo desberdinekoak (TUI “altura, kalitatea” adierazten duena, eta ITU “kalitate-eza, irtenbiderik-eza” esangura duena. Eta gauza bera -i adizkiari buruz ere (EIÑ/IN aitzineuskeratik etor daiteke, edota EN/IN atzizkitik. Ezin, beraz, “paso” egin, txostengileek egiten duten bezala, justifikazio bagerik.

Nire ustez, **Lakarrak eta Urgellek hitzen ezkerreko aldean dakutsaten CVC erro horiek, “interesatuak” izateaz gain (CVC axiomatikoaren bila eginahalak egiten), hipotesia hutsalak besterik ez dira, etimologia susmagarri batetan eraikitako hondar-gazteluak, inolako berme zientifikorik gabeak.** Kontraktorik zehazki demostratzen ez duten bitartean, ez dute balio handirik “aintzin-fonologia, morfologia eta hitz-familiak bereizteko”, Sagart hizkuntzalariak eskatzen zuen bezala (1999)

3.n- Euskeraren Batu Neolitikoa (hemendik aurrera “**EBN**” deituko dudana).

Euskeraren etapa guztiak izan daitezke “garrantzitsuak” berdintsu, baina **euskeraren garapenak Neolito Aldian izan zuen loraldi bikaina ez da bertan behera ahaztuta uztekoa.** Euskeraren, aldi horretan (-7.000~), bere bere aberastasun gorenera iritsi zen: Hizkuntza sáharar/mediterraniotik Abeltzaintza eta Laborantzarako behar zituen erroekin jantzi zen, domekako soineko dotorez.

Izan ere, “Sáharar Zibilizazioa eta hizkuntza”, Sáhara Berdea garaikoa, lehen kultura neolitikoa izan zen gure mundu ezagunean. Duela 9.000-7.000~ urte luzeko lehorte handia dela-eta, hango populuek migratu beharra izan zuten, eta euren AMA-kultura barreiatu zuten Mediterraneo osora, Sumeriako Tigris eta Eufrates ibarretaraino, baita Armenia, Anatolia, Kreta eta Egeo osora, hala nola Eki Europa Pre-indoeuropar orora.

Euskerak ere partekatu ahal izan zuen Sáharar jatorrizko jakituria eta Amaren Kultura. Eta Neolitoko garai horretanxe burutu zen, grekoa zein latina oraindik Linboan zirela, euskeraren HIZKUNTZA “FLEXIBOAREN” izaera konplexua, bere atzizki/aurrizki/ertziz hornituta, gehi aditz trinko zenbaitez, jantzi eder horiez guztiez dotoretuta. Sekulako jauzia euskerarena Neolito Aroan gertatu zena, geroztik halakorik izan ez duen garapen inportantea.

Euskeraren “hizkuntza isolatutzat” dutenek, alegia Trask eta honen jarraitzaileak (J. Lakarra bera ere?), oso oker dabilta. Hipotesi hori gezurtatzera dator EBN neolitikoaren errealitatea. Garai horretan, hain zuzen ere, gure hizkuntzak erro mordoxka bat hartu zuen, mailegu gisa, hizkuntza sáharar-mediterraniotik: ALE, ELI (animali-saldoa), ELE, AMA, UME,

SARA... *Ikus "Hitzen Koba: Hitz-Ele-Berba. La tres raíces de las que surgió el euskera*. Basandere, 2.005. Naberan Josu).

Liburu horri, nire ustez aurrekaria, labezomorro bati hainako harrera egin zioten J. Lakarra jaunak eta bere lagun Rikardo eta Filoblogia digitalekoek: hauek, salbuespenik bage, "Naberanen fantasia eta nabarmenkeriatzat" hartu zuten "*Naberan rides again*", eta J. Lakarrak, barriz, ohizko duen txiste merke mespretxugarri horietariko batekin: "*liburu hori irakurtzen duena euskera ahanzteko arriskuan dago*". Bide batez, jende harro edo harroxka inolaz ere ezin izan *estupido* besterik, hots, zientzialari mailara iritsi ahal izateko gaixo elbarria.

3.0- Euskera Modernoa (AEM: -3.000→+1.500~)

Euskera "Modernoa" deritzotena mugatzeko orduan, J. Lakarrak "euskera/latinaren kontaktuaren aurreko garaia" darabil mugarritzat, baina nire ustez hori ez da batere mugarri egoikia ez asebetaea. Zeren eta latin/euskera hizkuntzek ez dute inolako antzekotasunik, eta beraz, haien arteko "kontaktuak" hutsaren hurrengo eragina du, "hizkuntza-kontaktuari" dagokionez, **hizkuntza barnekoegitura mailan, esan nahi baita**.

Benetako garrantzia duen beste edozin gertaera lingüistiko jar zitekeen, adibidez, iberiera idatzizkoa desagartzea. Baina bistakoa da hemengo katedradunek ez dutela jakin nahi ezertxo ere iberierari buruz, nahiz eta iberiera euskeraren ahizpa bikia den, ez soilik egitura aldetik, baizik eta bisilabazkoak partekatzen dituztelako.

Goian esan bezala, **euskera/iberieraren egitura gramatikala eta latinarena zeharo kontrejarriak dira**. Ñabardura hori ezagutzen ez duenak, uste izan ohi du Latin jaio berritik datozela lar den beste berba (Romanista batzuen arabera %60ra arte!). Errakuntza galanta. Horietariko hitz asko eta asko EZ DATOZ LATINETIK, baizik eta iberieratik eta beronen dialektoetatik; edota "joan-etorriko maileguetatik dira" (*ikus ONDORIOAK*)

Hortaz, AEMren mugarritzat, batetik, EBN "Euskera Batu Neolitikoaren" bukaera jarri baharko litzateke (-3000~); eta beste muturrean Akitanako hilarrietako idazkunak... eta Iruña-Veleiako aztarnategian azaleraturikoidazkun miragarriak (ezen ez inondik ere "faltsuak", J. Lakarraren gustoko izan ala ez. Egiatan, orain dela urte pare bat-edo agertu diren hango idazkun batzuk(biltegiko materialetaik garbitu direnetarikoak) ezin dira faltsua izan inondik ere, idazkunen gaineko kaltzifikazio eta sustrai-marka horiekin. Baina horretaz enteratu nahi ez duenak, ez da enteratuko eta kitto.

Horren ondoren, ez dago euskeraren beste notiziarik XVIIko mendera arte, non gure hizkuntzaren azken etapa hasten den: Euskeraren Aro Garaikidea. Azken fase honetako lehen testu luzea Poema bat da ("*Amorantearen Poema*"). *Ikus* Academia.edu digitalean

3) ONDORIOAK

3.1.- Zirkunstantzialak (ñabardurak) ez ezagutzearen ondorioak.

Arestian esan bezala, -AN-, -EN-, IN-, -ON-, -UN- ñabardurek, hauek ere Goi Paleolitikoan sortuak, lexikoaren makineria mugiarazten duten "engranajea" osatzen dute. Lotura-hizki horiek ezagutu gabe ezinezko da, nire ustez, hitzak egokiro interpretatzea. Lotura "kopulatiboak" (*eta, edo, edota, ala*) ez ezagutzea bezala litzateke.

Txostengile hauen aldetik, ez da ageri zirkunstantzialik, arean ere, lexikoaren interpretazioan.

3.2.- "-A artikulua" ustekizun "faltsua".

Oso gai garrantzizkoa, horixe izan baitzen Iruña-Veleiako aztarnategia "faltsutat" kondentatzeko hizkuntza-aitzakia: "-A artikulua K.o V edo VI. Mendean sortu zela, eta Iruña-Veleiako idazkunen "-A" mordo bat ageri zenez, Veleia izena bera barne, hura guztia "faltsua" zela.

Bada, oraindik ere hala jarraitzen dute "sinesten" J. Lakarrak-eta, inolako argumentu zientifikorik gabe, "-A artikulua" mamu alienagena batean. Izan ere, hala J. Gorrotxateguik, nola

J.J. Lakarrak, nahiz txosten hau sinatzen dutenek (besterik azaltzen ez duten bitartean), zorigaiztoko "A- artikulua" fantasmagorikoan sinesten jarraitzen dute. Eta orduan, diñot nik, "VELEIA" aldarea bera, gure EHUKO arduradunen garaian aurkitua, faltsua ote da, idazkun hori eramatearren? Beraien logikaren arabera, bai noski. Aldare hori ere faltsua da "-A artikulua" daramalako; eta "IBARRA" eta beste zenbait antropónimo, "A- artikuludun" izateagatik, Akitaniako Aldareak ere "faltsuak" dira halabehere, eta Italian ageri den VELEIA herria ere "faltsua" da. Tira, motelak, Kriston asta-belarrikoak behar dira eduki, errealitatea bera (DAGOENA) "faltsua" dela deklaratzeko!

Bada nik ere egin nuen nire ikerketa, freeki honek, gezurra badirudi ere, eta argitaratu ere bai nire iritzia

. GARA egunkariko NAIZ digitalean, hain zuzen, "*Iruña-Veleiako hizkuntzalarien maila*" tituluarekin. Eta, "ofiziokook" ni bezalako "friki" bati sinets diezaidazuen inolako esperantzarik gabe bada ere, hona hemen "-A artikulua" bakarti horri buruz erran nuena bere garaian: "-A artikulua" dalako hori EZ da atzizki solte bat, ausaz hor nonbaitetik eroria, baizik eta DESINENTZIA bat, Uha (goikoa) Ara(lurraldea), Era (manera), Aria (mota)edo -eria (taldea), erro zaharren desinentzia.

Txarrena da ezen, "**-A artikulua**" zoritxarreko ustekizun anti-zientifiko hori gure Hizegi guztietan ere inokulatu dela: eta Hiztegiotako hitz-**sarreretan**, berez -A hondarkia (desinentzia) beharko lukeen -A itsasia (*organikoa*) moztuta duen hitz mordo handi bat ageri dela: adibidez, *madari, ortuari, gaztedi... madaria, ortuaria, gazteria/gaztedia...* esan beharrean.

3.3.- Euskalaritza "klasista"

J. Lakarra jaunaren hizkeran ez dakit zenbat bider errepikatzen duen kontzeptu hau ageri da: "ofiziokook" eta "bestelakoak".

Hots, GU ofizioko garenok (*bera eta bere lagun medailadunak*, nonbait), eta besteak (*amateur, friki...* goitizenez bataiatzen dituenak). Hori, harropuskeria edo hantustea izateaz gain, zer izan daitekebestarik **klasismoa** baino? Zer fede merezi ote du halakoen ikerketa mailak? Zeren eta benetako zientzialaria izateko, zenbait aurrebaldintza bete behar da: a) besteena entzuten jakitea; b) beraz, apaltasuna; eta, inola ere ez mespretxua; c) harrokeriazko jarrerarik ez izatea; d) gehiegitasun-komplexurik ez izatea, eta besteen iritziak ez gutxiestea... Berba batez, edozein pertsona normalak izan beharko lukeen zuhurtzia eta sena. Halre hortxe dugu erran zaharra: "senik eza da, ohikoena den sena";... eta, beraz, harropuskeria ohikoena. Abiatuta gaude!

3.4.- Metodologia dogmatikoa (axiomatikoa) erabiltzearen ondorioa

Txosten honen egilearen (edo egileen) kasuan, CVC-eredua da *axioma horren dogma asumitua*; hots, eredu horrexek, eta EZ bestelako ezeinek, izan behar duela aitzineuskararen egitura. Eta **axioma horrexek baldintzatzen du egileen ikerketa osoa**.

Nondik eta halako *fedea*? Intuizioren bat dela-eta akaso?

"Freeki" honen ustez, CVC-eredua txit minoritarioa da Euskeraren Etimologian. Eta, hortaz, J. Lakarraren iritzi hori **axioma batetan oinarritua** datza. Horixe bistaratzea da, hain zuzen, nire OHAR hauen eginkizuna. Txosten honetan azaltzen den ikerketaren metodologia "etxea teilatutik hastea" da; eraikuntza osoa iritzi axiomatiko batean oinarritzea. **Harea gainean eraikitako gaztelua**.

J. Lakarrak dioenez, bere CVC-eredu monosilabazkoaren bila ari dela, 140 bisilabazko aurkitu dituela diño. Bejondeiola. Teilatuko tximiniatik-edo sukaldera jaitsi dela dagoeneko. Eta "hurrengo batean beherago jeisteko asmoa" duela. Bedi.

Baina, axiomatikoa izateaz gain, bada arazo larri gehiago ere Josebaren metodologian. Ikus dezagun.

3.5- Hizkuntzaren eta Historiaren arteko elkar-loturaren falta.

J.A.Lakarra, P.Salaberri eta A.Sagarna jaunek sinatu eta lehen horrek aurkezten duen txostenean (*AITZINEUSKERAREN BERRERAIKETAZ EGINDAKOA*), nekez aurki daitekeeeuskararen bilakaerari dagokion aurre-historiarekiko kokapenik.

Adibidez, ikusi dugu EBZ, “Euskera Batu Zaharrari” dagokionean eraldaketa fonetiko bat izan zuela (txostengileen arabera, “sekulako eraldaketa”). Baina horixe besterik ez da esaten; ezen ez “zertaz” edo “zergatik” izan ote zen eraldaketa hura, eta are gutxiago “noiz” gertatu zen. Halako zehaztapenen arrastorik ere ez!

Hortaz, erreferentzia edo marko historikorik gabe, azaltzen den oro kontzeptu zehazgabeen sigla-zopa bat ematen du (AE, AEZ, AH, AMB, AEM...) Berba batez, *ez dago aurkitzerik, ez zehazki ez orokorki, hizkuntza-ikerketaren eta testuinguru historikoaren inongo loturarik.*

3.7.- Iberiera ez jakitearen ondorioak

J. Lakarrak diño ba ezen euskeraren barnean mailegu mordo bat dagoela, eta “euskeratzat hartu diren mailegu zahar ezezagunen ikerketa” bat behar dela... Ikusita Joseba nondik dabilen, txarrena espero dezakegu: berari ongi ez datozkion ereduak oro alboratzea. Horrela bere CVC-eredu axiomatiko horrek ez du izanen oztoporik bere bidean.

Haere, kontzeptu teoriko huts direnek beti izaten dute arrakalaren bat. Eta oraingo **arrakala larria honako honetan datza: iberiera ez ezagutzean.**

Izatez, iberiera enoratzea oso arronta baita, ez soilik gurean, baizik eta RAE beraren aldetik: **Espainiako Erret Akademiak ez baitu ezagutzen bere ama-hizkuntza, alegia, iberiera.** Zer izan daiteke hori baino gauza larriagorik?

Orduan, gauza normalena gertatzen da: hots, jatorrizko ama-hizkuntza ezagutzen ez dugunez, hizkuntza ama-aizun baten bila hastea; eta, **beste ezertara iritsi ahal ezin direnek, gure ama-hizkuntza latina dela pentsatzea.** Hots, latin jaio berria (-2.300) gure AEB (Aintzieuskera Neolikoa) eta horren aurreko beste guztien arbaso izatea. Halakorik! Horrek, endogamia ezeze, neba-arreben arteko sexu-jardueraren “tabua” bera ere hausten du.

Eta zer dela-eta errakuntza hain nabarmena?: iberiera ez delako ezagutzen. Are larriagoa, iberiera ezagutzeko gogorik ere ez dagoela. “Baina zergatik, ama?” (umea beti ekin eta ekin, zergatika); nik ez dakit ba, ume; beharbada inertziagatik, irakasleak bere programazioa eguneratzeko gogorik ez duelako; agian, alferkeria horrez gain, zientzia-maila eskasa izateagatik... Batek badaki, ume.

3.8.- Betiereko “Romanismoa”

Horixe baita erosoena. Katedradun *ofiziokoek* beren apunte horixkekin jarraitzea, betikoa behin eta berriro errepikatzen: **“erromantzeak” (gaztelera eta abar guztiak, eta euskera bera ere, hein handi batean) latinetik datozela**. Ikuspen honi “romanismoa” deitzen diot, “laitinismoa” beste gauza bat delakoan.

J. Lakarrak txosten honetan aurkezten duen hizkuntz-erakuntzei buruzko ereduari, beste hainbat aurrezjuzkuez batera, romanismoaren aurrezjuzkua datza: **euskerak bere ibilpidean barneraturiko hainbat eta hainbatero zahar, izatez, antzinako mailegu “alofenoak” direla** (“alofenoak”, sunda dariela?)

Konkretuki, jakintzat ematea, hala uste izateko inongo froga zientifikorik gabe, Europako hizkuntzak oro, bai “erromantzeak” (okerki aski horrela izendatuak, jakina) -eta euskera bera ere, noski-, *grekotik eta latinetik datozela jakintzat ematea.* Agian Delphos santutegiko orakulua izango da, edo halako pathu gaiztoren bat, baina, dena den *jakite misterikoa*, ezen ez inondik ere zientifikoa.

Hortik Lakarra jaunak euskerazko erro mordo bat mailegutzat jotzea: eta ALU, ARA, ERO... (euskerak milurtetako hamarkadatan zehar erabili dituen erroak) latinezko morfema **mailegutzat** jotzea. VCV-eredukoak direlako, akaso? Bada, beste zenbait VCV ere ahaztu zaizu: ERA (manera), ARA (lurralde), IRI/URI, IRO/EHO (haril, iruli), ERI (gaixo), ERO (zoro), ORO (gutzizko), ARO (biribil), ANU/ANO (mendirako bokata), URU (zeru)... Beste hauek bai, jaso

dituzu: ASE, OSO, AZA... nahiz eta diñozun “horiek eta beste zenbait, bisilabazko “modernotzat” har daitezkeela. Zeuk jakingo duzu zergatik. Zeren, nire entendimendua iristen deneraino, zerrenda horietan ageri diren edozein berba uler dezake edozein girstinok, Erromara erromes joan beharrik gabe.

Ez dakit, baina uste dut J. Lakarrak askoz bide samurragoa izan zukeela VCV taldeko egin balitz, ezen ez CVC taldeko. Baina tira. Norbere Siglakoak bitez garaile, lehenik eta behin! Aupa Athletic-CVC.!

Halere, futbol zelaitik bulegoratzuz, neroni gehiegitxo deritzat oraindiño, “**-i adizkia edo e- paragogikoa**” “mailegu zitezkeela” bururatzea, izatez **aitzineuskeraren bene-benetako monosilabazkoak direnean**. Hortxe begibistan eduki arren, bertan behera utzi ditu.

Eta barrero ere, nola izan dezakete gure “romanistek” burua hain aldrebestuta OHORE, AHATE, HAREA, IHINTZ, AHAL, OHOL, LEHEN, ZUHUR, HESKABIA hitzak “latin/erromantzetikako mailegu” direla esateko. Halaber BALEA, HERIO, JARIO, HAGIN, HOGEN/HOBEN (*offendere)...

Tira, bakoitza bere lapikoaren jabe da... baina bai aterako niokeela **txaltel gorriahizkuntza-arau fonetiko minimoei kasurik egin gabe jokatzan duen jokalaritari**.

Jo kontuak eta azkenean ulertu dut (nahiz eta ez arean konprenitu) J. Lakarraren jokoa: horrekin VCV mordo bat uzten du jokoz kanpo, bere eredu maitagarriak (CVC) zelai osoa libre eta oztoporik gabe izan dezan. Baina hori ez al da futboleko “offside” eta frontoian “atxikia”?

Tira, Romanistek edozein espektakulu munta dezakete, baita “gauza miragarrien erretaula” sonatua ere.

Baina argi eta garbi datza euren **paradigma erratua: grekoa eta latina (batez ere azken hau) omen dira hitzkuntza mediterraneo aneztro oren sehaska “miragarria”**. Eta bai izan ere “miragarrizko” sehaska, berau: zeren kontutan hartuta latina haur jaiobarria besterik ez dela (-2.000), egiazki “miragarria” baita ume jaiobarri batek bere aiton-amonei lezioak eman ahal izatea, eta ez alderantziz, arbasoak izatea transmititzaile, edozein pertsona zentzuzkok suposa lezakeen bezala.

3.8- Ekarpen berriak

Bere magisteritzan bakea eta lasaitasuna bilatzen duen ezein romanistak ez luke irakurri behar Carme G. Huertas mallorkarraren liburua: “Nu venim din latinâ” (No venimos del latin). Zeren hura arretaz irakurtzen duena zeharo desarmatuta uzten baitu. Carmé-ren arrazoiketa, izan ere, kontestaezina da. Mallorkarrak ez dauka nire apologia-premiarik, aski eta sobera baita bere kabuz dioenarekin. Carme anderea, J. Lakarrak dioen “ofizioko” maila goren horietarikoa ez den arren, beste ezein katedradunak baina argi eta garbiago azaltzen du dena, dagoena eta zergatia oro:

- 1- Hizkuntza “erromantze” okerki izendatuak (gaztelena, catala, andaluziera, aragoera, gaskoiera...) ez daukate zerikusirik latinaren gramatika-egiturarekin, baizik eta egitura txit kontrajarriak dituzte haiek eta latinak.
- 2- Hizkuntza horiek, hala nola italiera bera eta errumaniera, ez datoz latinetik.
- 3- “Erromantze” delako horiek guztiak iberieratik datoz, hots, dialekto iberikoak dira.
- 4- Azkenez, iberieratik dialekto horietara emaniko jauzia duela -1.500 urte inguru gertatu zen (500 K.o) Eta hara nola izan zen: Inperio erromatarra erori eta **latina kaletik Administrazio bulegoetara zein Eliz eremura erretiratu zenean, haren ordezkotzko hizkuntzak atera zuen: iberiera mintzatuak**.
- 5- Iberiera idatzia aspaldi baztertua zegoen, latin idatziak ordeztuta. Baina populuak, batez ere aldirietakoak, ibarieraz mintzatzen jarraitu zuen. Latinaren hutsune hura betetzera zetorren ordezkotzko, iberiera, aldirietatik hirietara jaistean, biziberritu egin zen, euskualde bakoizeko ukitu eta ñabardurekin: eta horixe da, hain zuzen, **dialekto berri mintzatuen sorkuntza, gaztelera eta beste guztiena**. Geroago baino ez zen gertatu izan dialekto horien idazkera sortzea (San Millan Kogoilako “Glosas Emiliannenses”, Vinuesa, etab.)

6- Beraz, **gazelera eta abar, ez datoz latinetik, baizik eta iberieratik: dialekto iberikoak dira**

Ni ez naiz horretan espezialista, Carme Huertas bezala, baina Euskerari buruzkoan bai, ordea; eta konklusio berorretara iritsi naiz, euskeraren azterketa medio. Euskeraren bidez iberiera dezifratzera heldu naiz, eta zera demostra dezaket inolako zalantzarik barik: gaztelera-zko hiztegia euskeratik interpretatzen diren hitz mordo bat dago (gehien-gehienak.

Iberisten azken Biltzar Nagusian (2021eko abuztuan), gaztelera-euskerazko hitz-zerrenda luze bat aurkeztu nuen adibide gisa (500 hitz gaztelera-zko, euskeratik dezifratuak). Horre arrazoia argi dago: gaztelera-hiztegiko hitz horiek iberiera dira, euskeraren bidez dezifragarriak. Zeren, esan bezala, euskerak eta iberierak 550 ing. hitz bisilabazko partekatzen baitute (ikus Academia.edu: *Euskera Dantzara! El IBÉRICO desde el EUSKERA*. ACCI.2020-maiatza)

HITZATZE

Aztergai dugun Txosten honetara itzuliz, Joseba Lakarra bere CVC-eredu axiomatiko hori burutzeko presaz dabilenez, utz biezaio bidea aske, bere azken ondorioetara irits dadin.

Horretarako ahaleginak eta bi egiten dakusat, gehienetan sekulako ekilibrioak egiten bere eraikuntza artifizialekin. Horrela, adibidez, EDAN *e-da-ra gisa interpretatzen du, -DA- eta -RA- horiek *nondik* eta *nola* fundamentuen azalpenik gabe.

Eta bere idurikeriaz jarraiki,

JARDUN	*e-da-ra-dun
INARROSI	*e-da-ra-non-ts-i
JARRAIN	*e-da-ra-din
URGATZ	*e-da-ra-gotz-i

JAR, ordea, izen ezezaguntzat jotzen du. Azkenez, suposatzen du, erro horiek, **noizbait** (noiz, zelan eta zergatik azaldu gabe), gramatikalizatu (“lexikalizatu”) egin zirela.

Eta modu horretara, hain sinpleki, bere hizkuntza-deriba imaginario hori justifikatutzat ematen du. Baina hori ez da ikerketa serio bat, eta are gutxiago “zientifikoa”. Zeren eta hizkuntzalari ofizioko batek **bere erro nimiñoenak ere justifikatu egin behar ditu, den-denak, ezagun nahiz ezezagun izan.**

Adibidez, -RA-, -DA-, -TS-, -GOTZ- ertzikiak, gehienbat ezezagunak, hala nola bukaerako -i edo -TU adizkiak jartzen baditu, zehazki azaldu beharko luke nondik datozen, nola sortu diren, zergatik, etab. Eta ezin du justifikatu barik ezertxo ere bertan behera utzi. Are gutxiago eransten duenean, dohainki, morfema “susmagarriak” direla (sic), edota “latinetikoa” zein “bestelatikoen” jatorrikoak direla edo izan daitezkeela.

Okerrena da, letra-zopa asmatu horien artean, monosilabazko perla batzuk (ZI, GI) bertan behera uzten dituela, hain eskura izan dituenean, “hitz konplexuagoen hondarkinak” direlakoan.

Azkenez, zorionak Joseba Lakarrari, zintzotasun osoz diot, halako lan mardul bat lantzen hain esfortsu handia eta dokumentatua egin duelako. Eta hori guztia euskeraz adierazteko gai izan delako. Euskal Hizkuntzalari gutxi ezagutzen dut bere lan nagusiak euskeraz egin dituenik.

Bestalde, bere esaldi bat zuzendu beharra daukadala uste dut: “euskeraz inork ez du deskribatu bisilabo→monosilabiko prozesu orokor zahar eta zabalik” Seguruenik Koldo Mitxelena gogoia duela erran du esaldi hau, eta ez ezein freeki-ren baten akordioz. Baina freeki honek bai burutu duela bederen, “prozesu orokor zahar eta zabal” hori. Egiatzatzeko gogoia duenak Academia.edu digitalera jotzea baino ez dauka, eta naberan/profilean behatzea.

Hala ere, gogoan zeukeat ele zahar hura: “ez zegok itsu itsuagorik, ikusi ez duena baino”

Zorte On opa diot Josebari, ez solik bere lanak egiazki merezi duelakotz, baizik eta Urdaibaiko bailarakideak ere bagarelako (iberieraz LAKUN). Eta prest nengoke, gainera, hala gura balu, gure bion lanak alderatzeko, dialektika eraikitzaile baten bidez. Biderdi bateta elkar gaitzke, OMAN edo.

“Alegeraçaitec. Çeure guçia”.

Josu Naberan. 2022ko urtarrila